

TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN:

DURANGO

2016/05/30

Kokalekua: Landako Kulturgunea (Durango)

Iraupena: 2 ordu eta 45 minutu

Parte hartzaileak

Izena	Udalerria	Elkarte/Erakunde/... /
Miguel Angel	Zaldibar	Omnia Zaldibar
Endika Jaio	Mañaria	Mañariko udala
David Cobos	Atxondo	Atxondoko Udala
Niko Moreno	Elorrio	EH Bildu
Karmen Amezua Urzelai	Berriz	EH Bildu
Lorea Muñoz	Izurtza	EH Bildu
Paul Yarza	Ermua	EH Bildu
Alexander Magunacelaya	Amorebieta	Particular
Fernando Hevia	Elorrio	Particular
Ignacio Javier Zarandona	Elorrio	SQ2D
Hodei Otzerinjauregi Zenikaonaindia	Durango	Zaldibarko udal arkitekto aholkularia
Dani Maeztu	Durango	EH Bildu
Jorge Varela	Durango	SQ2D

Izena	Udalerría	Elkarte/Erakunde/... /
Unai Valle	Durango	Ofertakdurangaldea Podemos Durango
Jasone Ibarra	Amorebieta	Ayuntamiento Amorebieta-Etxano
Eider Galarza	Amorebieta	Ayuntamiento Amorebieta-Etxano
Eider Uribe	Durango	Durangoko Udala
Roberto Bermejo	Durango	
Jon Bingen Landabidea	Durango	Durangoko Udala
Jesus Gonzalez San Pedro	Durango	Herritarra
Rosario San Millan Gutierrez	Durango	Herritarra
Joseba Bikandi Bikandi	Durango	Herritarra
Alex Boto	Durango	

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Izaskun Iriarte Irureta	Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
Pilar Monjas Rubio	Bizkaiako Lurralde Antolakuntzako Arduraduna

Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Iñaki Romero Fernandez de Larrea	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru

Izena	Enpresa
Ainhoa Lopez Eiguren	Inguru

Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Izaskun Iriarte Iruretak, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordeak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariek eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzeko eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitarteko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-parte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailererako proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu lřakik.

Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu lřakik, baita azpigiaren edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
 - o Paisaia
 - o Ingurune fisikoaren antolamendua
 - o Klima aldaketa
 - o Babestutako Naturguneak
 - o Korredore ekologikoak

- Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
 - Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
 - Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
 - Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
 - Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
 - Hiriz hazkundera
 - Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
 - Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
 - Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - Bide-mugikortasuna
 - Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
 - Talde mugikortasun multimodala
 - Eredu logistikoa
 - Ura
 - Energia
- Zeharkako alderdiak
 - Genero ikuspegia, osasuna, euskara
 - Lurraldeen arteko harremana
 - Parte hartzea eta Gobernantza

Parte hartzaile batek hitza hartu du, parte hartze prozesuari kritika eginez. Zehazki, LAGen berrikuspenerako parte hartze prozesua Orik ez dela hasten adierazi du, etorkizuneko eredua lantzen hasi aurretik, orain arte jarraitutako lurralde antolaketa ereduaren ondorioak aztertzea beharrezkoa baita. Era berean, bizitoki kalkulurako formula, prozesu parte hartzailea abiarazi baino lehen, dekretu bidez onartzea ere kritikatu da.

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Anak:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak;

Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Horretarako bi panel ditu talde bakoitzak, landutako ideiak adieraziko dituztena (post it bat, ideia bat) eta landuko duten gaiari buruz oinarritzko dokumentuan datozen ideiak adierazten direna. Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.

- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

1.1. Paisaia

1.1.1. Porlan, azpiegitura eta pinu asko daude. Kudeaketa publikoaren beharra dago paisaia mantentzeko.

1.1.2. Paisaiaren kudeaketa edo kontrol publikoa, abeltzaintzan egiten den kudeaketaren antzera.

1.1.3. Jabetza transferentzia eman da

1.2. Babestutako naturguneak

1.2.1. Lurralde-kapitala: balio totalak ezin du atzera egin, ezin da balio sozial edo ekonomikoagatik ordezkatu. Babestutako naturguneei, babes maila altua eman zaie, baina ez gainerako lurraldeari, hau beti baita eraldagarria.

1.3. Korredore ekologikoak

1.3.1. Azpiegitura gutxiagorekin korredore ekologikoak bere horretan mantenduko lirateke, azpiegitura berriak planteatzea ez da beharrezkoa.

1.3.2. Korredore ekologikoak babestutako naturguneak bezain garrantzitsuak dira.

1.3.3. Bertan behera geratutako elementuen berreskurapen eta/edo deuseztatze lanak barne bildu.

1.3.4. Lurraldea mozten duten sare berriak gauzatzea baztertu.

1.3.5. Aranetako leku estuetan tunel faltsuak edo soluzioa baliokideak proposatu.

1.4. Klima aldaketa

1.4.1. Klima aldaketatik eratorritako arriskuen aurreikuspena/prebentzioa

1.4.2. Basoen kantitate eta kalitatea hobetu

1.4.3.Higiezinaren efizientzia energetikoa hobetzeko neurriak

1.4.4.Mugikortasun ereduaren aldaketa

1.4.5.Energia ekoizpen ereduaren aldaketa

1.4.6.Mugikortasuna eta kontsumo energetikoa murriztu

1.5. Orokorra

1.5.1.Euskal Hiria ereduaren kolokan: Hiriburuetatik eta hiriburuetarako lurralde ereduaren gainerako eskualdeak hauen zerbitzura daudelarik (lo-herriak, mugikortasun azpiegiturak, harrobiak, poligonoak, sare elektrikoa...) Etengabeko hazkunde ekonomikoa behar duen sistema.

2. Landa-ingurunea

2.1. Landa-ingurunearen garapen ekonomikoa

2.1.1.Udalen finantziarioa aldatu egin behar da. Momentu honetan poligono industrialak sustatzen ari dira, landa-lurzorua alde batera utziz. Nekazaritza edo abeltzaintzarako lurzorurik onenak industriarako gordetzen dira, diru iturri nagusia direlako. Landa-lurzoruari balio eman behar zaio, babestutako lurrak edo landa-eremuak dituzten udalerriek diru sarrera gutxiago izatea saihesteko.

2.1.2.Balorea eman landa lurrari

2.1.3.Tokiko ekoizpenak/transformazioa/salmenta bultzatu

2.1.4.Tokiko kontsumoa eta komertzializaziorako espazioak areagotu.

2.1.5.Ekoizle txikiei babesa. Pizgarri fiskalak. Gure orografiara hobeto egokitutako ereduak.

2.1.6.Landa lurrek historikoki izan duten funtzioa (herritarren elikatzea) berreskuratu behar da.

2.2. Landa-ingurunearen antolamendu fisikoa

2.2.1.Espazio naturala eraldaketatik babestu, okupatu edo birgaitzeko espaziorik geratzen ez denean izan ezik.

2.2.2.Komunikazio-bideak hobetu

2.2.3.Zerbitzuen deszentralizazioa

3. Hirigunea.

3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza

3.1.1.Auzoen birgaitzea: urbanizazio hobea/berdeagoa

3.1.2.Eraikingintza hobea, energetikoki eraginkorra.

3.1.3.Eskualde ikuspegia garatu behar da

3.1.4.Hazkundeak mugatu, ez izatea ereduaren ardatza

- 3.1.5. Urbanizazio berdea sustatu, klima aldaketari aurre egiteko neurri zuzentzaileak barne hartzen dituenak: eremu berde gehiago, zoru drainatzaileak, eta abar.
- 3.1.6. Dentsitate altuagoa, eraikingintza trinkoagoa, espazio libre zabalagoak sustatzeko.
- 3.2. Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
 - 3.2.1. Eraldaketa sustatu
- 3.3. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
 - 3.3.1. LAGek etxebizitza eta industriarako derrigorrezko zenbatekoa (urkila) zehaztea kritikagarria da. Lehenengo hutsik dauden etxebizitza eta industriak okupatu behar dira. Herriek eta eskualdeek zehaztu behar dituzte zeintzuk diren beharizan errealak.
 - 3.3.2. Mankomunitateak, ekintzen agente sustatzaile gisa.
 - 3.3.3. Ekintzaileentzako espazioen sorrera, teknologikoki aurreratuagoak diren/beste profil bateko enpresen haztegiak.
- 3.4. Hiri hazkundera
 - 3.4.1. Harrotze-koefizientea iraunkortasun irizpidearen aurkakoa da. Ikusi da merkatuak ez duela doitzen.
 - 3.4.2. Etxebizitza beharizanenean eta hutsen eta eraikitzeko gaitasunaren diagnostiko erreala bat izan gabe ezin da kuantifikatu.
- 3.5. Orokorrean
 - 3.5.1. Eskualde bezala ikuspegi estrategikoa behar da (udalerrien arteko koordinazio organoa), guztion artean elkarlanean aritzeko eta horrela herrien arteko norgehiagoka, guztiek zuzkidura/poligono/azpiegiturak izan ditzaten, ekiditeko.
- 4. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - 4.1.1. Intermodalitatea Bilboren zerbitzura dago, eskualde barneko mugikortasunerako kotxea behar da.
 - 4.1.2. Induzitutako mugikortasuna: Azpiegiturak (adibidez, merkatalguneak, poligono industrialek, kiroldegiek) kotxearen premia sortzen dute.
 - 4.2. Bide-mugikortasuna
 - 4.2.1. Eskualde mailako mugikortasuna sendotu behar da, bereziki autoaz bestelakoa (oinez, bizikleta, trena, autobusa...)
 - 4.2.2. Hipermugikortasuna ez da helburua.
 - 4.2.3. Irisgarritasuna eta garraio publikoa lehenetsi

- 4.3. Eredu logistikoa
 - 4.3.1. Nork dio Euskadi nazioarteko nodo logistikoa izan behar denik?
- 4.4. Ura
 - 4.4.1. Saneamendu- eta banaketa-sareen bereizketa mantendu.
 - 4.4.2. Araztegiak optimizatu, zerbitzu atalak hurbilduz (galerak saihesteko)
- 4.5. Energia
 - 4.5.1. Burujabetza energetikoa
 - 4.5.2. Jarduera/alternatiben bitartez eskaria murriztu.
 - 4.5.3. Zero kontsumo
 - 4.5.4. Autokontsumorako aukerak eman eta kontsumoa murriztu
 - 4.5.5. Eredu energetiko deszentralizatua sustatu.
- 5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea
 - 5.1. Lurraldeen arteko harremana
 - 5.1.1. Eskualde- eta toki-ikuspegia batera diseinatzeko. Horretarako subjektu administratibo bat behar da.
 - 5.1.2. Garrantzia handiagoa eman
- 6. Gai orokorrak
 - 6.1. Lurralde plangintzaren egitura arautzaile guztia berrikusi behar da. 1990eko legea eta LAGak dauzkagu eta gainerako plangintza guztia dekretu bitartez arautzen da eta honekin, dagoeneko arazo batzuk sortu dira. Gainera, LAGei eman nahi diegun garrantzia aztertu behar da, izan ere, momentu honetan, etxebizitza eta jarduera ekonomikoen kuantifikazioa bakarrik dira lotesleak. Ondorioz, LAGei eman nahi diegun garrantziaren arabera, lurralde plangintza hobetzera begira, beste aspektu batzuk ere lotesle egin beharko dira.